

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

4685

AGINDUA, 2021eko irailaren 1ekoa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan aurreikusitako laguntzen deialdia egiteko dena, 2021. urterako. Dekretu horrek enpresaburuen elkarteei eta erakunde sindikalei dirulaguntzak emateko modua arautzen du, enpresa-elkarteen eta sindikatuen giza baliabideen kualifikazioa haien jarduera-eremuen berezko gaietan hobetzera zuzendutako prestakuntza-planak garatzeko.

Uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuak (2003ko irailaren 1ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua, 169. zenbakia) Enpresaburuen Elkarteei eta Erakunde Sindikalei dirulaguntzak emateko aukera arautzen du, Enpresaburuen Elkarteen eta Erakunde Sindikalen giza baliabideen kualifikazioa haien jarduera-eremuen berezko gaietan hobetzera zuzendutako prestakuntza-planak garatzeko. Dekretu horrek, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak 1996. urteko urriaren 29an 244/1996 Dekretuarekin hasitako laguntza-neurriei jarraipena emateko helburua du. Adierazitako neurriak prestakuntza-jarduerak gauzatzeko dira, Enpresaburuen Elkarteen eta Erakunde Sindikalen berezko helburuen barnean. Dekretu horren bitartez enpresaburuen elkarteen eta erakunde sindikalen prestakuntzako barne-programak indartzera, integratzera eta koherentzia ematera zuzendutako finantzaketa publikoko sistema bat ezartzen da, horiek beren koadroen eta langileen prestakuntzarako tresna egokia izan daitezen, modu horretan egoera soziolaboralari beharrezko laguntza emanez.

Aipatutako arauak indarraldi mugagabea du, hain zuzen ere arauaren 9.3 artikulua ezartzen du Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren aginduaren bitartez urtero aipatutako Dekretuan aurreikusitako laguntzen deialdia egingo dela, horiek finantzatzeko erabiliko diren eskaeren eta gehienezko kopuru globalaren aurkezteko epea adieraziz, entitate onuradunen bi kategorien artean banatuta.

Deialdi hau COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoerak baldintzatu du. Osasunaren Mundu Erakundeak, 2020ko martxoaren 11n, egoera nazioarteko pandemia-mailara igo zuen, eta horri lurralde-mailako beste osasun-alerta batzuk gehitu zitzaizkion. Alerta horiek agerian utzi zuten aparteko eta premiazko neurriak hartu behar zirela birusaren hedapena geldiarazteko, larrialdi-egoerei berehala erantzun ahal izateko.

2021. urteari dagokionez, SARS-Cov-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzeko duen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretua eta aipatutako alarma-egoera luzatu zuen azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretua izan dira, 2020ko urriaren 26tik 2021eko maiatzaren 9ra, pertsonen oinarrizko zirkulazio-eskubideak mugatzeko eta biltzeko eskubidea mugatzeko arau-euskarria. Euskal Autonomia Erkidegoan, arau-esparru horren babesean, Eusko Jaurlaritzako gobernu- eta osasun-agintariek hainbat arau eman dituzte euste- eta prebentzio-neurriak ezartzeko hezkuntzaren eta prestakuntzaren eremuan, bai eta merkataritza-jardueraren, kultura-ekipamenduen, establezimendu eta jolas-jardueren, ostalaritza- eta jatetxe-jardueren eta beste eremu osagarri batzuen eremuan ere. Alarma-egoera amaituta, lehendakariak, maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretuaren eta haren ondorengo aldaketen bidez, prebentzio-neurriak eman ditu, SARS-Cov-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

Pertsonen mugikortasunaren mugek, hezkuntza- eta prestakuntza-jardueren eta jarduera ekonomikoen murrizketek, eta kutsatzeak saihesteko osasun-gomendioak betetzeko betebeharrak,

bereziki gizarte-urruntzeak, gizarte-eragileak behartu dituzte orain arte aplikazio mugatua zuten baina une honetan normaltasunera itzultzeko funtsezkoak diren ohiko jarduerak orokortzera.

Horien artean dago teleprestakuntza. Baliabide horrek, ondo kudeatuta, kalitatezko prestakuntza ahalbidetzen du, bai eta enpresa-elkarteen eta erakunde sindikalen giza baliabideen kualifikazio-maila hobetzea ere.

Pandemiaren bilakaera ikusita, gizarte- eta lan-jardueraren hainbat arlotan pixkanaka normaltasunera itzuliko den agertoki berri baterantz aurrera egiten ari bagara ere, oraindik ez gara iritsi alarma-egoera deklaratu aurreko egoerara.

Hori dela eta, 2021eko ekitaldiko deialdian, eutsi egin behar zaio uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuaren 7.3 artikuluan aurreikusitako ekintza motaren arabera aurrekontu-banaketan iazko deialdian egindako aldatetari, artikuluan horretan aurreikusitako ehunekoak aldatuz, 3.b) artikuluko prestakuntza ez-presentzialeko ekintzetarako eta uztailaren 191/2003 Dekretuaren 3.c) artikuluan aurreikusitako prestakuntza-jardueretara joateko ekintzetarako.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuak, 10.1.y) artikuluan Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzari esleitzen dio gizarte-eragileen giza baliabideen kualifikazioa sustatzeko eginkizuna, gizarte-eragileek gizartearen garapen ekonomikoari eta ongizateari egiten dioten ekarpena bultzatuko duten prestakuntza-planak sustatuz.

Uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuko 16. artikulua ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan propio ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako dira Dekretuaren helburua betetzeko behar diren aurrekontu-baliabideak.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 49.5 artikuluan ezarrita dagoenez –Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateratua onartu zen dekretu horren bidez–, Euskal Autonomia Erkidegoaren ekonomia-ekitaldi bakoitzeko aurrekontu orokorrak indarrean jartzen direnean, dirulaguntzak arautzeko behar diren xedapenak emango dira, eta egon daudenak gaurkotu edo aldatu egingo dira; orobat, bere garaian indarraldi mugagabekotzat jo ziren dirulaguntzak iragarriko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrek onartzen dituen otsailaren 11ko 1/2021 Legean, 45499 azpikontzeptuan (Irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuentzako transferentziak eta dirulaguntzak), 3112 Lan programan (11. Zerbitzua, Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza), enpresa-elkarteen eta sindikatuen prestakuntza-planak ize-neko 004 partida esleitu da, 751.129 euroko zenbatekoarekin.

Xedapen honek deitutako dirulaguntzen lerroa Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu Sailburuaren 2021eko otsailaren 23ko Aginduan dago aurreikusita, zeinaren bidez onartzen baita Lan eta Enplegu Sailaren 2021erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8.1 artikulua ezartzen duen bezala, eta agindu horretan adierazitako edukiarekin.

Hori guztia dela-eta, eta aipatutako uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuko 9.3 artikuluan aurreikusitako gaikuntza baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helburua.

Uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan xedatutako laguntzak eskuratzeko 2021eko deialdia agitea. Dekretu horren bidez, enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei beren jardura ere-

muetako berezko gaiei dagokienez, giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak egiteko emango zaizkien dirulaguntzak arautzen dira.

Bigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu honek ondorioak sortzen dituenetik aurrera.

Hirugarrena.– Diru-baliabideak.

2021erako deialdi honen xede den finantzaketara bideratutako baliabide ekonomikoak 751.129 eurokoak dira guztira; horietatik 525.790 euro 2021. urteko aurrekontu arruntetik ordainduko dira eta 225.339 euro 2022rako konpromisoko aurrekontutik, 3112 Lana 11 zerbitzua, Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza programaren kontura.

Zenbateko hori entitate onuradun izan daitezkeen kategoria bien artean banatuko da, banaketarako formula honakoa izango dela:

a) Enpresaburuen elkarteei gehienezko kopuru globalaren % 40 emango zaie, hau da, 300.452 euro.

b) Erakunde sindikalei gainerako % 60a emango zaie, hau da, 450.677 euro.

Laugarrena.– Dirulaguntza kuantifikatzeko irizpideak.

2021eko deialdian, eta uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuaren 7.3 artikuluekin bat etorritz, 3.b) artikuluko prestakuntza-ekintza ez-presentzialetarako prestakuntza-plan beraren barruan onartutako dirulaguntzak amaierako dirulaguntzaren % 100 ere izan ahalko du.

Bestalde, 3.c) artikuluan aurreikusitako prestakuntza-jardueretara joateko ekintzei egotz dakiekeen zenbatekoa azken dirulaguntzaren % 100era artekoa izan daiteke.

Bosgarrena.– Dirulaguntzak emateko eta eskuratzeko baldintzak.

1.– Honako hauek dira aipatutako dirulaguntzak jasotzeko baldintzak:

– Uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan aurreikusitakoak. Dekretu horrek enpresaburuen elkarteei eta erakunde sindikalei dirulaguntzak emateko modua arautzen du, enpresa-elkarteen eta sindikatuen giza baliabideen kualifikazioa haien jarduera-eremuen berezko gaietan hobetzera zuzendutako prestakuntza-planak garatzeko.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean eduki beharko dituzte.

– Ezingo dute eduki zigor- edo administrazio-mailako zehapenik, laguntza publikoak edo dirulaguntzak eskuratzeko aukera galarazten dienik, eta, halaber, ezingo dira egon horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekuren batean, ezta sexu-diskriminazioaren zioz sortu direnetan ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005 Legeak) azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoaren arabera.

– Ezingo dira egon Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak (azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak) 13. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako egoera batean ere.

2.– Nolanahi ere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak) 50.4. atalean ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak edo erakunde autonomiadunek

ezaugarri bereko beste laguntza edo dirulaguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei dirulaguntzak edo laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak betetzeke dituztenak ezingo dira onuradun izan.

3.– Artikulu honetan onuradun izateko ezartzen diren baldintzak betetzen direla justifikatzeko, bestalde, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahalgo da. Salbuespen bakarra zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean direla ziurtatzeko agiria izango da.

Seigarrena.– Kudeaketa-organoa.

Lan eta Enpleguko Saileko Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza da eskaerak kudeatzeko eta izapidetzeko ardura duen organoa, eta ebazteko eskumena duena Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendaria.

Zazpigarrena.– Ebaluazio-batzordea.

Agindu honetan ezarritakoaren babesean aurkeztutako proiektuak analizatu eta ebaluatzeko, ebaluazio-batzorde bat sortuko da. Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzako hiru teknikarik, titularrak izendatuak, osatuko dute.

Batzorde horrek ebazpen-proposamena egingo dio Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendariari, uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuaren 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zortzigarrena.– Dirulaguntzen tramitazio telematikoa.

1.– Eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak, justifikazioak eta laguntzak emateko deialdi honetan inplikaturako gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira.

2.– Eskabidea eskuratzeko eta betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa erabili beharko da, honako helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1065404>

Aipaturako egoitza elektronikoa egongo dira eskuragarri izapidetzeari buruzko jarraibideak, bai eta eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak ere.

3.– Espedienterako sarbidea, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak, justifikazioak eta agindu honetan inplikaturako eskabidearen ondorengo gainerako izapidetak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta»ren bidez egingo dira (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>).

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikazio eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak eskuragarri daude helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

5.– Eskabideak elektronikoki izapidetu ahal izango dira ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordetzeen erregistro elektronikoa inskribatu behar izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

Bederatzigarrena.– Eskaeren aurkezpena eta egiaztatzearen eta dokumentazioaren ekarpena.

1.– Eskabidea, erantzukizunpeko adierazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen inprimakian beteko da, helbide honetan: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1065404

2.– Dirulaguntzaren eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

– Prestakuntza-planaren inprimaki deskribatzailea, Dekretuak 10.a) artikuluan ezartzen dituenak barnean bilduta eta Agindu honen eranskinak jasotzen duen formatuan. Memoria horrek 1 eta 2 dokumentuak jasoko ditu, baita 3 dokumentuaren ale bat ere eskatzen den prestakuntza-jarduera bakoitzeko.

– Eskabidearen sinatzaileak erakunde eskatzailea ordezkatu, bere izenean dirulaguntza eskatu eta berau jasotzeko duen legezko gaitasuna egiaztatzen duten agiriak.

3.– Honako hauek jasoko ditu erantzukizunpeko adierazpenak:

3.1.– Erantzukizunpeko adierazpena, beste dirulaguntza batzuen egoerari buruzkoa, baldin eta horiek administrazio batzuei nahiz erakunde publiko nahiz pribatuei eskatu bazaizkie, eta jadanik edo tramitatzeke badaude, prestakuntza-plan berbera betetzeko edota eskabidepeko plan horren alderdietatik edozein betetzeko.

3.2.– Erantzukizunpeko adierazpena, itzulketa prozeduren edota prozedura zehatzailearen egoerari buruzkoa: baldin eta halako prozedurak hasi badira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomiadunek izaera bereko dirulaguntza eman eta gero, eta prozedura horiek oraindik tramitatzeke badaude.

3.3.– Erantzukizunpeko adierazpena, sexu-arrazoiengatik bereizkeria egin izanagatik administrazioaren nahiz zehapenen eremuan zigorra jaso ez izana eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen izenean debeku horrekin zehaturik ez egoatea adierazten duena.

3.4.– Erantzukizunpeko adierazpena, dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten duen administrazio-zehapenik ez izatea edo horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekurik ez izatea adierazten duena.

3.5.– Dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharren ordainketa egunean duelako erantzukizunpeko adierazpena, araudiaren arabera zehazten den moduan.

3.6.– Dirulaguntzen Lege Orokorren 13.1 eta 2. artikuluan xedatutako ezein inguruabarretan ez dagoelako erantzukizunpeko adierazpena.

3.7.– Uztailaren 19ko 191/2003 Dekretuan eta Dirulaguntzen Lege Orokorren 14. eta 46. artikuluetan ezarritako betekizun eta baldintza guztiak betetzeko konpromisoa.

3.8.– Abenduaren 17ko 698/191 Dekretuaren 2.3 artikuluan ezarritako formatatik edozein erabiliz, berme erreala eratzeko konpromisoa hartzea.

4.– Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkeztean baimena emango diote organo kudeatzaileari zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egon behar duela dioen betekizuna betetzen duela egiaztatzeko behar beste ziurtagiri eskatzeko. Hala ere, erakunde eskatzaileak modu arrazoituan egin ahal izango dute aurka; kasu horretan, ziurtagiri horiek aurkeztu beharko dituzte, erregelamendu bidez aurreikusitako moduan.

5.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde eskatzaileak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasuna Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan egon beharko du.

Erakundea ez badago erregistratuta edo Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroan dauden bankuko datuak aldatu nahi baditu, elektronikoki izapidetu beharko du Euskal

Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>).

Hamargarrena.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuak ezartzen dituen betebeharez gain, laguntza hauen onuradun suertatzen diren erakundeek bete egin beharko dute azaroaren 17ko 38/2003 Legeak (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak) 14. 18. eta 46. artikuluetan ezarritakoa, bai eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak) 50. artikuluan ezarritako betebeharrak ere.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan (dekretu horren bidez, beren jarduera-eremuetako gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten, enpresa-elkarteentzako eta sindikatuentzako dirulaguntzen emakida arautzen da) ezarritakoari ez ezik, honako hauek xedatutakoari ere men egingo diote agindu honek hizpide dituen dirulaguntzek: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea (urriaren 1eko 39/2015 Legea); Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea (urriaren 1eko 40/2015 Legea); Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua; eta Dirulaguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea) eta 887/2006 Errege Dekretuan (azken horren araudia onartzen duena) jasotako oinarritzko arauketa.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Honako hauetan xedatutakoaren arabera, deialdi honen izapidean jasotzen diren datu pertsonalak (parte-hartzaileek tratatzeko baimendutakoak) fitxategi batera sartuko dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesa eta datu horien zirkulazio askea arautzen duena eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. Dirulaguntzen deialdi hau edo honekin zerikusia daukan bestelako edozein administrazio-prozedura edo -espeditze kudeatzea izango da fitxategi horren xedea, bai eta deialdian parte hartu duten pertsonen deialdiaren garapenaren berri ematea ere. Lan eta Enplegu Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza da fitxategi horren arduraduna. Datuak begiratzeko, zuzentzeko eta ezeztatzeko eskubideak erabili ahalko dira, <http://www.euskadi.eus> web-orrialdean datuen babesari buruz jasotzen den informazio gehigarri eta xehean azaltzen den bezala.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko diote interesdunek Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzietarako errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, aldizkari ofizial berean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek ezarritakoaren arabera.

2021eko irailaren 9a, osteguna

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 1a.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

2021eko irailaren 9a, osteguna

ERANSKINA

ENPRESARI ERAKUNDEEK ETA SINDIKATUEK SUSTATUTAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZEN
EGITARUA

2021eko DIRULAGUNTZA-ESKABIDEA

1. DOKUMENTUA
PLANA ANTOLATZEKO ARRAZOIAK

Proposatu diren prestakuntza-ekintzak egiteko premia arrazoitu behar da zehatz-mehatz; horretarako, hala dagokionean, honako alderdi hauek ere jaso behar dira: plan estrategikoa, zerbitzuen kalitatea hobetzeko proiektua edo proposatutako prestakuntza ekintzak eragiten dituzten premien azterketa.

Hala behar izanez gero, orri honen atzealdean ere egin daiteke azalpena

2021eko irailaren 9a, osteguna

ENPRESARI ERAKUNDEEK ETA SINDIKATUEK SUSTATUTAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZEN EGITARUA
 2021EKO DIRULAGUNTZA-ESKABIDEA
 2. DOKUMENTUA
 PRESTAKUNTZA EKINTZAK BARNE HARTZEN DITUEN PLANAREN ESKEMA BIDEZKO TAULA

ERAKUNDE ESKATZAILEA

Hurrenkera zk.*	Prestakuntza ekintzaren izena	Hasiera eta amaiera egunak	Tokia/irakastegia (izena eta helbidea)	Iraupena ordutan			Leku kop.	Prestakuntza ekintzaren aurrekontua
				Guztira	Teoriazkoak	Praktikazkoak		
							Aurrekontura guztira	

* Lehentasunaren arabera idatzi
 Behar izanez gero, inprimaki honen ale bat baino gehiago erabil daiteke

B.2.– Baldintza bereziak.

Gizatalde honek baldintza berezirik daukan edo ez zehaztu, ekintzan probetxu bikainak ateratzeko egokiak direnak.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

B.3.– Zabalkunde-prozesua. Zabalkundea egiteko erabili behar diren bitartekoak adierazi.

- 1.– Prentsa.
- 2.– Irratia.
- 3.– Mailing-a.
- 4.– Esku-paperak - kartelak.
- 5.– Beste batzuk (aipatu):

.....

.....

.....

B.4.– Hautaketa prozedura.

Eskatzaileen artean hautaketa egiteko kontuan izango diren irizpideak eta aldagaiak zehaztu.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

C) PRESTAKUNTZA EKINTZAREN HELBURUAK.**C.1.– Helburu nagusiak.**

Ekintza dela bide lortu nahi diren emaitza orokorrak zehaztu, bertaratutakoek lortutakoen arabera adierazita.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

F) EDUKIAK.

Prestakuntza ekintzaren edukiak biltzen dituzten arloak edo eduki-multzoak eranskinean sartuko dira beste orri batean.

G) EKINTZA MOTA.

Presentzialak/ez presentzialak/beste erakunde batek antolatutako ekintzetara bertaratzea

.....
.....
.....
.....

H) METODOLOGIA.

Aurreikusitako helburuak eta edukiak garatzeko ezarriko diren era eta metodo didaktikoak azaldu.

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

I) BALIABIDEAK.

Aurreikusitako jarduerak garatzeko beharrezkoak izango diren baliabide motak zehaztu.

I.1.– Materialak.

Inprimakiak:

.....
.....
.....
.....
.....

Ikus-entzunezkoak:

.....
.....
.....
.....

Material suntsigarria:

.....
.....
.....
.....

I.2.– Pertsonak.

Zuzendaritza eta koordinazioa (adierazi izena, eginkizunak eta aurreikusitako dedikazio-orduak).

.....
.....
.....
.....
.....

Irakasleak (prestakuntza ekintzan parte hartzen duen irakasle bakoitzeko, honako datuok eman behar dira: izena, lan-jarduera, titulazioa, lan-esperientzia, irakaskuntza alorreko esperientzia, ekintzan eman beharreko ordu kopurua; bertako irakaslea ala kanpoko den).

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

J) EBALUAZIOA.

Bertaratutakoek lortutakoak baloratzeko aurreikusitako ebaluazio modua azaldu, xehetasunak emanaz.

J.1.– Ebaluaketarako aldagaiak eta irizpideak zehaztu behar dira:

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

J.2.– Ebaluazioa egiteko zein metodologia erabili behar den adierazi behar da:

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

J.3.– Ebaluazioa zein unetan egin behar den adierazi behar da:

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

2021eko irailaren 9a, osteguna

J.4.– Ebaluazio prozesuaren arduraduna:

.....
.....
.....
.....

Prestakuntza ekintza hau egiteko beste laguntza publikorik edo pribaturik jaso edo eskatu al da?

Ez

Bai (adierazi erakundea eta zenbatekoa):

.....
.....
.....

Izenpea:.....